



**Arartekoaren 2014NI-1422-14 ebazpena, 2014ko abenduaren 18koa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zainpean dagoen Iturriotz-Azpi babesgabeko haurtzaroko egoitza-zentroan ikuskapen-bisitaren ondoren egindako jarduerari amaiera ematen zaio.**

### Aurrekariak

1. ***Jarduera eremua: portaera-arazoak dituzten nerabeentzako programak ikuskatzeko bisita-plana.***

Ararteko erakundeak arreta eta jarraipen berezia ematen die, 2008ko uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautuko dituenak, espezializatutzat jotzen dituen programei, hau da, portaera-arazoak dituzten nerabeak zaintzeko programa espezializatuari eta portaera-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa emateko programa espezializatuari, programa horiek espezializatuak direnez baitituzte ezaugarri batzuk eskubideak urratzeko arriskua areagotu dezaketenak (biziguneetatik urrun egotea, eusteko neurriak erabiltzeko posibilitatea - immobilizazio fisiko pertsonala zein isolamendua-, baldintza zehatz batzuetan gorputz miaketak egiteko posibilitatea, etab.). Hori dela eta, eta estatu mailan frogatutako kasu batzuetan antzeko ezaugarriak dituzten zentroetan bizi diren nerabeen eskubideak urratu direlako, zentro horiek interesgune bihurtu dira hainbat erakundetzat.

Euskadin garatzen ari diren programa espezializatuen egungo egoera zein den ikusteko eta zuzenean ezagutzeko asmoz, 2011n zentroak bisitatzeko plan bat abian jarri dugu, eta horren barruan sartu da Iturriotz-Azpiko zentroaren ikuspen-bisita. Hala ere, kasu honetan, bisita une horretan bertan egin nahi izan dugu egoera berezi baten aurrean geundelako.

2. ***Iturriotz-Azpiko egoera berezia.***

2010eko maiatzaren bukaeran, gure lurraldera bakarrik heltzen ziren adingabe atzerritarrei ematen zitzaien arreta gertutik jarraituz, Arartekoko langileek Iturriotz-Azpiko zentroa bisitatu zuten. Une hartan, Dianova elkarteak kudeatzen zuen zentroa, eta bertan, portaera-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa emateko programa espezializatuak garatzen ari zen, zehatzago esateko, substantzia toxikoen kontsumo-arazoak dituzten eta inoren kontura ez dauden adingabe atzerritarrez arduratzen ziren. Foru erakundeari orduan jakinarazi zitzaizkion kezka nagusiak, -hemen ez ditugu aztertuko-, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2010. urtean egindako txostenean bildu ziren.

2011ko abenduaren azken egunetan, zentroarekin harreman zuzena izan zuten pertsona batzuk hurbildu ziren erakunde honetara, inolako kontrolik gabeko



egoeragatik kezkatuta zeudela esanez. Euren ustez, egoera horrek bertan lan egiten ziren profesionalen zein hartutako adingabeen segurtasunerako arriskua sortzen zuen, eta beste datu batzuk kontuan hartuz gero, zentroaren hezkuntza-izaera zalantzan jartzeko modukoa zen. Iritzi berdinekoak ziren 2012ko maiatzaren bukaeran zentroko egoera zuzenean ikusi zutenak: langileen errotazio handia, une hartan zentroan bizi ziren adingabeek hezitzaileak errespetu gutxiarekin tratatzea, hortaz, hezitzaileen autoritaterik eza eta heziketa-lan eskasa, oinarritzko bizikidetzaren arauak haustea, auzokoekin arazoak, etab.

Bi uneetan Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuarekin harremanetan jarri genuen eta egoera honezkero ezagutzen zutela, horren arrazoiak zentroa kudeatzen zuen entitatearen zailtasun larriak izan zitezkeela eta arazoa konpontzeari ekin ziotela jakinarazi ziguten. Enpresa kudeatzaile berri bat kontratatzea erabaki zen, eta horretarako, 2012ko maiatzean lehiaketa publikoaren deialdia egin ondoren, 2012ko irailean, egoitza zentroaren kudeaketa CLECE SA enpresari esleitu zitzaion. Zentroaren egoera gertutik ezagutzeko interesa galdu gabe, erakunde honek aurreikusitako bisita hilabete batzuk atzeratzea erabaki du, erakunde orok lanean hasteko eta ezinbesteko aldaketak egiteko denbora behar duela kontuan harturik.

2013ko lehenengo seihilekoaren amaieran CLECE SA enpresa kudeatzaileak kontratuari uko egin ziola jakin genuen, eta IRSE BIZKAIA enpresari esleitu zion zentroaren kudeaketa, 2013ko irailetik aurrera. Aipatu ditugun arrazoi berengatik aurreikusitako bisita berriro atzeratu genuen, enpresa kudeatzaile berriak egonkortasun eta finkatze maila jakin bat lortu arte, 2014an lortuko zuela ulerturik. Gauzak horrela, 2014ko ekainaren 5ean, Haur eta Nerabeentzako Bulegoko langileek Iturriotz-Azpiko egoitza zentroa bisitatu zuten. Egun, zentroak 10 plaza eskaintzen ditu, neska zein mutilentzat, eta portaera-arazo larriak dituzten nerabeentzako programa espezializatua gauzatzen ari da. Aurreko bisita egin zenean, hau da, 2010ean ez bezala, ez da arduratzen inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrez soilik.

### 3. *Bisitan ikusitakoa eta lortutako informazioa.*

Iturriotz-Azpiko egoitza zentroa Gipuzkoako Foru Aldundiaren antzinako mendi aterpetxe batean dago **kokaturik**, basoz inguratutako sakonune batean eta biziguneetatik urrun. Aia udalerriko hirigunetik 10-12 km-ra dago eta ibilgailu partikularra behar da hara iristeko. Hain zuzen ere, 3 ibilgailu erabiltzen dituzte joan-etorriak egiteko eta neska-mutilak leku batetik bestera eramateko, eta egoitzako profesionalak arduratzen dira horretaz.

Ez dago sakelako telefonoentzako estaldurarik eta telefono-linea satelite bidezkoa da, baina konexioa ez dago une oro bermatua.

Eraikin nagusi batek, erantsia dagoen eraikin batek eta kanpoaldeek osatzen dute zentroa.





Eraikin nagusiaren antolamenduari dagokionez, beheko solairua erabiltzen da, batez ere. Bertan, sukaldea, jantokia, egongela, ikasgela, 3 logela, hezitzaileen gela, komunak eta bainugelak, biltegia eta ikuztegia daude. Ganbaran badaude: beste 2 logela, bisitak eta komunikazioak egiteko gela bat eta ganbarako sabaia baxua delako erabiltzen ez den espazio zabala.

- Komunak: ondo daude. Sexuaren arabera bereziak eta guztiak kisketarekin.
- Logelak: handiak, norberaren erara jarrita, objektu pertsonalak gordetzeko lekua eta mahaia dutenak. Nesken logelan, mahaia egon badaude, baina ezin dira erabili lan egiteko sabaia baxua delako eta argi gutxi dagoelako.
- Sukaldea: handia, ondo hornitua, oso txukuna eta ordenatua. Janaria bertan prestatzen da (ez dago catering-ik) eta benetako platerak eta mahaitresnak erabiltzen dira jateko, ez plastikozko batzuk.
- Jantokia: beheko solairuko gela handiaren parte bat da eta sukaldearen ondoan dago. Arazo orokorrak tenperatura eta isolamenduarekin.
- Egongela: hotza, nahiko altzari higatuekin (sofak). Hormetan, jardueretan egindako argazkiak eta neska-mutilentzako informazioa jartzeko ohar-aula bat. Esan digutenez, obra batzuk aurreikusten dira zona hori aldatuko direnak.
- Ikasgela: arrunta, bertan, ordenagailu bat eta material inprimatua.

Eraikinaren diseinua, jatorrizko erabilerarako egokia bada ere (aterpetxea izateko eraiki zen), ez da erraz moldatzen egungo erabilerara. Guztientzako eremuetako sabaia oso altuak, txapitula-erako sabaia ganbara erabiltzeko beharra sortzen dutenak, isolatzailea ez den estaldura, hotza eta zarataren aurkako isolamendurik eza, azken hori, bereziki kezagarria da komunikazioak eta bisitak egiteko gelan, bertan intimitatea bermatu ezin baita. Garbitasun eta mantentze maila ona da, nolana ere.

Eraikin berean, baina kanpoaldetik aparteko sarbidearekin, isolamendu-gela bat dago. Esan digutenez, ez da erabiltzen. Hutsik dago, material bigungarri apainduta, kamerarik gabe. Itoginak ditu eta, izan ere, erabiltzen ez dela ematen du.

Alboko eraikinean badago erabilera anitzeko gela handi bat, 2 bulego eta komun bat. Kanpoaldean, berotegi bat duen baratze txiki bat dago, lanabes-etxola bat, eraikitzen ari den gela txiki bat gimnasio izango dena eta mini-kantxa bat, tarteka aparkaleku gisa erabiltzen dena. Ez dago aisialdirako edo kirola egiteko lekurik, ezta eraikinetatik kanpoko espazio estalirik ere.

Aipatu bezala, zentroan gauzatzen ari den **programa** portaera-arazo larriak dituzten nerabeentzako programa espezializatua da. Gipuzkoako egoitza-harrerako sarean erabilitako terminologian, lehen faseko zentroa da, bigarren fasekoa den Azpilikuetakoko zentroarekin lotua, batez ere.



2010ean ez bezala, egoitza-zentroan bizi direnak ez dira atzerritarrak eta gizonezkoak bakarrik. Neska-mutilak hainbat tokitik iristen dira, adibidez: egoitzetako harrera sareko beste pisu batetik, oro har, oinarrizko programa baten barruan, pisuan (pisutik kanpo ez hainbeste) sortzen zituzten arazoak direla medio; beraien etxeetatik, nerabezaro zaila baitute eta bizi diren inguruan ez daukate laguntzeko gai den pertsona heldurik. Gehienetan, ez daukate diagnostiko klinikorik, nahiz eta kalte/kasu klinikoak izan, eta kasu batzuetan portaera-arazoak agertzen dira, droga kontsumoarekin lotura dutenak. Batzuetan, profil psikologiko desegokia duten nerabeak ere iristen dira, nahaste psikiatrikoak dituzten gazteak, hain zuzen. Baina agian beste baliabiderik ez dagoelako gertatzen da (osasun arloan, adibidez, komunitate-mailan tratamendu intentsiboagoa egiteko baliabiderik eza). Egun egoitzan bizi diren pertsona gehienak tutoretzapean daude eta gainerakoak – zaintzapean.

Kasu gehienetan, Iturriotz-Azpian adin-nagusitasunera iritsi arte egoten dira, eta gero, norbera bere etxera edo emantzipazio-etxebizitza batera joaten da bizitzera. Beste kasu batzuetan, gaztearen bilakaera horretarako aproposa bada, bigarren faseko zentro batera joaten da, autonomia izatera pixkanaka moldatzeko gomendagarriena delako. Gutxitan, oinarrizko programan zuzenean sartzen dira.

2013-2014 ikasturtean neska-mutil ia guztiak ikastetxe batean matrikulatuta zeuden, eta 2014-2015 ikasturtean eskolatzeko izapideak egin dira, ikasteko zailtasun handiak izan arren.

Antzemandako arazoetako batek neska-mutilek Iturriotz-Azpiko zentrorra joan baino lehen jasotzen duten informazioarekin du zerikusia. Batzuek esaten dute ez dakitela zergatik eta zertarako dauden zentroan. Ez diete ibilbideari buruzko azalpenik eman, ez diete esan zenbat denborarako izango den, etab.

Bisitaldian bildutako informazioa ikusita, agian, daturik aipagarriena zera da: zentroa kudeatzen ari den entitateak lan-absentismo altua (laneko baxak), desilusioa, motibaziorik eza eta neke profesionala aurkitu duela. **Hezitzaile taldearen** zati batek aipatutako arazoak ditu eta baliteke aldi luze batean lana egoki betetzeko baldintzak hondatzeak eta baliabideen urritasunak zerikusia izatea, lana emozio aldetik berez gogorra dela kontuan hartzen bada. Gainera, esan digutenez, entitate kudeatzailearen eta hezitzaile taldekide gutxi batzuen arteko lan gatazkek bertako giroa hoztu egiten dute.

Beste datu aipagarria da gauez lan egiten duten hezitzaileek txanda *finko* bat dutela, arduradunek azaltzen dutenez, zentro horiek arautzen dituen 131/2008 Dekretuak xedatutakoarekin bat etortzen da.

Galdetutako arduradunen iritziz, programa espezializatu horietan interesgarria izango litzateke, gainera, beste profil bateko profesionalak sartzea, hain zuzen ere, psikologo bat edo familian esku-hartzeaz arduratuko den profesional bat, zentroan arduraldi osoan edo partzialean lan egiteko. Lehenengoa, neska-mutil



batzuek duten kalte psikologikoaren gainean jarraibideak eta orientabidea emateko, eta beharrezkoa denean esku-hartzeak egiteko. Eta bigarrena, arduradunen iritziz, familia-sistemarekin egiten den lanari aurre egiteko, orain gehiegi zatikatua delako eta koherentzia gutxi duelako.

Baliabidearen arduradunek aipatzen duten beste arazo bat egoitzako LTZko (laguntza tekniko emateko zerbitzua) profesionalekiko harremana dela, eta kasuaren azken erantzukizuna horiek dutela diote. Kasuaren gainean orientabide eta arreta gutxi ematen zaiela sentitzen dute, neska-mutilekin egunean zehar informazio garrantzitsua partekatzeko aukera asko badituzte ere. Esku-hartzea kalitatez egiteko eta neska-mutilen bilakaerako oso garrantzitsuak diren eginkizun horiek betetzeko orduan hainbat arazo aipatzen dituzte, hala nola, langileen errotazio handia, esperientziarik eza eta maila tekniko eskasa.

Azkenik, portaera gatazkatsuak dituzten neska-mutilekin lan egiteko jarraibide zehatzak adostea komeni dela esaten da. Hori, programa espezializatuak garatzen dituzten zentroen artean egin behar da, guztiek ahal dutena eta ildo berean egiten dutelako konfiantza sortzeko eta gatazka larrieneko egoeran dauden neska-mutilak modu orekatuan banatzeko (bereziki disruptiboak, arreta gehien eskatzen dutenak, etab.)

#### 4. *Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren informazio osagarria.*

Bisitaldian lortutako informazioa eta ikusitakoa dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren barruan dagoen Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuari dokumentazio osagarria eskatzen zaio, honako hauei buruz: zentroaren hezkuntza-proiektua; 2) zentroari atxikitako langileen zerrenda, honako hauek zehaztuz: lanpostua, prestakuntza (baldin badagokio, homologatua dagoen ala ez) eta antzinasuna, Iturriotz-Azpin zein egoitza-harrerako baliabideen sarean; 3) une honetan egoitzan dauden 10 neska-mutilen eskolatze egoera.

Aurkeztutako informazioa aztertu ondoren, zentroko langileen ratio orokorrean ez dugu arazorik ikusten, baina bai ikusi dira arazo batzuk prestakuntzari dagokionez, kasu batzuetan oraindik gaikuntzarik gabea izatea, eta beste kasu batzuetan, prestakuntzarik eza, sindikatuek *baliozkotzat* jo duten arren. Gai honi buruz gogoetak biltzen dituen atalean hitz egingo dugu.

Eskolatze egoerari dagokionez, 2013-2014 ikasturtean neska-mutil ia guztiak ikastetxe batean matrikulatuta zeuden, eta 2014-2015 ikasturtean eskolatzeko izapideak egin dira, ikasteko zailtasun handiak izan arren.

#### 5. *Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuko arduradunekin bilera.*

Lortutako informazioa osatzeko eta egiaztatzeko asmoz, Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuko arduradunekin bilera bat egin da, honako gai hauei buruz hitz egiteko:



- Iturriotz-Azpiko zentroko egungo egoeraren balorazio orokorra:

Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren arabera, zentroan egiten ari den esku-hartzearen balorazioa oso ona da. Azpilikuetako zentroak, hau da, Iturriotz-Azpikoarekin "lotutako" bigarren faseko zentroak ere oso balorazio ona lortu du. Lan giro ona dago, zentroaren arauak eta araubidea landu dituzte eta dagoeneko "gurutzaldi-abiadura" hartu dutela uste dute. Langile gehienaren balorazioa ere oso ona da (hezitzaile taldeak Zerbitzuari bidali zion gutun bat aurkeztu da). Izan ere, auzokoekiko eta inguruko udalerriekiko arazoak hainbestearaino gutxitu dira, non Zarauzko Ertzaintzatik deitu baitiete zentroak lanean jarraitzen ote duen galdezka.

- Kokapena, ekipamendua eta konforta.

Oso urrun eta bakarturik dagoela aitortzen badute ere, epe labur eta ertainean kokapen aldaketarik aurreikusten ez dela esaten dute. Eraikinaren jabea foru entitatea da eta garaiotan ez daude ezaugarri horiek lituzkeen zentro berri baten kostua hartzeko prest.

Gure bisita eta bilera bitarteko denboraldian aurreikusitako obrak egin dira, hortaz, lehen antzemandako arazo batzuk konpondu dira: hezitzaileen gela lekuz aldatu da eta orain lehen egongelaren zatia zen espazio berri batean dago; bide batez, goiko solairuko logela (neskena) ere lekuz aldatu da eta orain beheko solairuan dago. Goian dagoeneko ez dago logelarik eta espazio zabal hori bisitak eta komunikazioak egiteko, baita beste unean uneko ekintza batzuetarako ere erabiltzen da.

- Zentroa erabiltzen duten pertsonen profilak

Zergatietan sakondu eta hirugarren batzuen erantzukizuna ez ote den galdetu gabe, batzuetan, nahaste psikologikoak dituzten neska-mutilak (kasu batzuetan, diagnostikatutakoak, beste batzuetan, ez) zaindu behar dituztela aitortzen dute. Neska-mutilen beharrak hartzen dira abiapuntu eta horiei ahalik eta hoberen erantzuten saiatzen da.

Iturriotz-Azpiko zentroan ez ezik, oro har, egoitza-harrerako sare osoan laguntza gisa, Osakidetzako Ospitalez Kanpoko Osasun Mentalaren zerbitzukoekin harreman oso ona dutela esaten dute.

- Nahitaezko eskolatzea

Hezkuntza Ikuskaritza eta Egoitza Harreraren (LTZ) arteko harremanak onak dira eta lan mahaiak hiru hilean behin biltzen dira, neska-mutil bakoitzaren zailtasunak banan-banan aztertzeko. Kontuan hartzekoa da gazte batzuen kasuetan ez dela eskola-porrota bakarrik, benetako "eskola uztea" baizik. Izan ere, ikasle horiek urte askoko heziketa gabeziak izaten dituzte.



Programa espezializatuetan, hezkuntza arloan zailtasun handiagoak egoten direla konturatu dira, eta horrexegatik, hain zuzen ere, irakasle lanpostu bat sortzeko aukera aztertzen ari da, bi zeregin nagusi betetzeko: 1) neska-mutilen ikastetxeekin harremanetan egotea (edozein kasutan, hau da, ikaslea joaten da ikastetxera, matrikulatuta dago baina ez da joaten edo ikastetxetik kanporatu dute), asistentzia kontrolatzea, etxeko lanak egiten dituzten begiratzea, etab. eta 2) beharrezkoa denean, zentroan klaseak ematea.

- Zentroari buruz neska-mutilei ematen zaien informazioa

Neska-mutilei normalean esaten diete nora joango diren, zergatik eta zertarako izango duten hezitzaile-tutore bat, oinarrizko programan ala espezializatu batean dagoen. Esaten dutenez, inoiz edo behin ez da informaziorik eman, gehienetan nahi gabe, edo bestela, nahita egin da ihes egitea saihesteko. Agian hobetu behar da, baina orain arte behintzat, ez dute kontu horri buruzko kezarik jaso.

- Hezitzaile taldean beste profil batzuetako profesionalak sartzeko proposamena.

Hezitzaileen taldean beste profil bateko profesionalak sartzea aberasgarria izango litzatekeela eta diziplina anitzeko ikuspegi batetik lanari heltzeko aukera emango lukeela uste dute. Izan ere, gai hori 131/2008 Dekretua aldatzeko bileretako gai-zerrendan sartu dute.

- Familiekin lan egitea

Egoitza harrerari dagokion eta Gipuzkoan indarrean dagoen prozedurak dioenez, hezitzaile-tutorea da kasuaren arduraduna eta Kasuaren Planaren jabea, beraz, berari dagokio eragile batzuei zein besteei informazioa eskatzea, helburu berriak proposatu eta ebaluatzea eta beste programa eta baliabide batzuk aktibatzea proposatzea. Aldaketa hau duela gutxi ezarri zen sarean (2012ko uztailean) eta kostata aplikatzen da, hortaz, ezin da esan hezitzaileek barneratu egin dutenik.

Kasu-arduradunaren lanean laguntzeko, LTZ (Laguntza Teknikoko Zerbitzua) kontratatu da egoitzan. Horbel enpresak kudeatzen du eta bertako aholkularien zeregina ez da kasuez arduratzea, baizik eta kasuen ardura duten tutoreen lana ikuskatzea, erkatzea, aholkuak ematea,... Ikuskapen-lana egiteko, LTZ Kasuak adingabearekin bakarka egoten da, hezitzaileak ez daudenean. Nahitaez, urtean hiru aldiz biltzen da gaztearekin, hasieran bakarka eta gero tutorearekin egoteko. Biler horietako bakoitzaren ondoren akta egiten da. Aktak, hezkuntza-neurri zuzentzaileak eta gorabehera larriak Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzura bidaltzen dira.





Diotenez, LTZan lan egonkortasun handia dago (gehiegizko errotazio eta eskarmenturik ezaren aurrean), baina, jakina, bete behar diren lan eskubideak ere badaude (baxak, oporraldiak, eszedentziak, baimenak...).

Esan bezala, beste programa eta baliabide batzuek aktibatzea (familiarekin lan egiteko programa barne) kasuaren arduradunari dagokio, hau da, egoitzazentroan, beste programetako profesionaleri hezitzaile-tutoreak esan beharko die zeintzuk diren helburuak eta zein ildori jarraitu behar zaion. Hainbat kasutan, adingabea bere familiarik bereizteko neurria (egoitza harreran edo ez) hartzen da. Gipuzkoako Foru Aldundiak familia horiekin lan egiteko 6 programa prestatu ditu eta familiek eta adingabeek dituzten premien arabera aktibatzen ditu.

Edozein kasutan, familiakide guztien ongizatea zaintzeko zera proposatzen dute: familian esku-hartzea, baina Iturriotz-Azpiko langileekin koordinazioan, eta ez lan hori euren esku utziz, zentroko entitate kudeatzaileak proposatzen duen moduan. Aitortzen dutenez, familian esku-hartzea eta zentrokoa bat ez badatoz, adingabea familiarekin bateratzeko orduan zailtasunak sor daitezke, 2 "sistema" horietan helburu berriak eta erritmo berean landu ez direlako. Falta hori ikusita, familiarekiko heziketa-programaz arduratzen den entitateak, egoitza harrerako hezitzaile talde batekin batera, familiarekin bateratzeari begira elkarrizketak zehazteko tresna bat diseinatu dute. Bukatu gabe dago oraindik.

Gainbegiratzan diren bisitaldiei dagokienez, kasuaren arduradunak komenigarritzat jotzen duen tokian egingo dira, egoitza zentroan bertan bada ere.

- o Gatazkan dauden gazteekin lan egiteko jarraibideak.

la 3 urte jardun dute programa espezializatuak garatzeko lanean, irizpideak, prozedurak, protokoloak, etab. adosteko. Bada denboraldi bat lan hori gelditu dutela, baina berriro ekingo diote.

6. Bisitaldiari buruzko bukaerako txostena ia amaituta, baina zentroko egoera ikertzeko jarduketa oraindik itxi gabe zegoenean, komunikabide jakin batzuek *"Iturriotz-Azpiko zentroan tutoretzapeko adingabeak zaintzean arduragabekeria posiblee"* buruzko albistea argitaratu zuten, albisteak berak dioenez, Fiskaltza egoera aztertzen ari zen honezkero. Hala eta guztiz ere, arestiko bisitaldia dela eta, eta gure ikerketa oraindik itxi gabe dagoenez, gertatutakoaren gaineko interesa erakutsi dugu (horren mamia balioztatu gabe, organo judizialek balioespena egin behar dute eta). Oro har, gertaera horien aurrean foru administrazioaren jardueraz ere galdetu dugu.

Gure eskaerari erantzunez esan digute foru entitateak honako hauek egin dituela: gertatutakoa jakin eta berehala entitate kudeatzailearekin harremanetan jarri dira eta hitz egin dute; 2) zentroaren barruko ikerketa bat





hasi eta salatutako egoera gertatu zenean bertan zeuden neska-mutilei eta hezitzaileei elkarrizketa egin diete; 3) Fiskaltzarekin lankidetzan aritu dira, behar den informazio guztia eta egindako ikerketaren ondorioak jakinarazteko. Gainera, salaketa eragin duen bideoa helarazi digute, baita Fiskaltzarentzako txostenaren kopia bat ere. Bertan, foru entitateak atera dituen ondorioak biltzen dira, eta dirudienez, profesional batzuen praktika txarreko gertakari bat -unean unekoa- besterik ez da izan. Adingabeak ez zuen inolako kalterik jasan (ez kalte fisikorik, ezta psikologikorik ere). Hortaz, entitate kudeatzailearen jarduerak eta errudunei aplikatutako zigorrak ontzat ematen ditu, gertatutakoaren arabera izan direla esanez. Txostenean ondorioztatu bezala, ez dago zentroan bizi diren neska-mutilen egonlekua aldatzeko beharrik.

Azkenik, entitate kudeatzaileko arduradunekin hitz egin dugu eta gorabehera gertatu ondorengo jardueren zein informazioa komunikabideetan agertu denaren berri eman digute. Guri interesatzen zaiguna: gorabehera gertatu zenean bertan zeuden hezitzaileak ikertzea eta zigortzea; egoitzan bizi diren adingabe guztien familiekin harremanetan jartzea euren seme-alabak nola dauden jakinarazteko. Gurasoek horren beharra ikusten badute, seme-alabekin hitz egiteko edo zentroan bisitatzeko aukera eman behar zaie.

### Gogoetak

1. Iturriotz-Azpiko zentroan dauden neska-mutilen egoera eta jasotzen ari diren arreta dela eta, erakunde hau kezkatzen zuten baldintzak desagertu egin dira eta ez dira antzeman egindako bisitaldian. Aitzitik, giro positiboa nabaritu da eta hezitzaile eta neska-mutilen arteko harremanak egokiak direla ikusi da.

Antza denez, eta jasotako informazio guztien arabera, arazoak konpondu egiten dira eta emaitza positiboak ikusten dira zentroan.

2. Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautuko dituen 131/2008 Dekretuko 6. artikulua dioenez, portaera-arazo larriak dituzten nerabeentzako programa intentsiboen salbuespenezko izaera dela eta, biztanleria-guneetan txertatuta ez egotea posible da, hala ere, egoitza zentro hau edozein bizigunetik hain urrun egotea gehiegizkoa iruditzen zaigu. Beharbada, zentroa sortu zenean, egoitzaren erabiltzaileek partekatzen zuten ezaugarrietako bat zen droga jakin batzuk kontsumitzeko arriskua, baita hezkuntza sare arruntean eskolaratua ez egotea ere. Orduan, kokapen horrek ez zuen zailtasunik sortuko, are gehiago, komenigarria izango zen hezkuntza eta terapia mailako esku-hartze egokia egiteko; egun ez, ordea.

Kokapenak komunikatzeko eta komunitatean parte hartzeko zailtasunak sortzen ditu, baita neska-mutil bakoitza bere ikastetxerako joan-etorriak egiteko orduan ere. Edozein kasutan, hezitzaileek neska-mutilak "eraman eta ekarri" egin behar dituztenez, baliabideak xahutzen direla esan nahi du.



Administrazioen aurrekontua mugatua izanik, ulergarria da gaur egun ezin dela egin zentroen kokapena erabat aldatzeko planteamendurik. Hala ere, baliabidearen kokapena ezin dugu onartu, eta horren aldaketari buruzko hausnarketa egin beharko dugu inguruabar ekonomikoek hobera egingo dutenean.

3. Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuko langileek jakinarazi digutenez, kasuaren ardura hezitzaile-tutoreek hartzea oraindik onartu gabe dago, eta uste baino gehiago kostatzen zaiela dirudi. Gauzak horrela, adingabeak eta familiak zaintzean funtzio horrek duen garrantzia ikusita, gure iritziz, ezin da zain egon aldaketa hori "bere erritmora" ezarri arte. Hortaz, hezitzaileak informatzeko, kontzientziatzeko eta "kasu-arduradunaren" erantzukizuna euren gain hartu eta erabil dezaten laguntza emateko helburua duen jarduera bat burutzea komenigarria izango litzateke.  
Halatan, lanaldian horretarako denbora aurreikusten dela bermatu beharko da, eta bereizi egingo da eguneroko bizitzan esku-hartzeko denbora, eta kasua koordinatzeko beharrezkoak diren lanetarako denbora (beste profesionalekin koordinatzea, bileretan parte hartzea, familiarekin harremanetan egotea, etab.).
4. Ildo berari jarraituz, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuak kexarik jaso ez zuela esan arren, hainbat kasutan neska-mutilek ez dute batere argi nora joaten diren, zertarako edo zergatik, eta garrantzitsuena, ez dakite zein den horren helburua edo esku-hartze plana. Horixe izango litzateke, beraz, "kasu-arduradunaren" erantzukizuna hartzea sustatzeko neurrien antolaketa-proposamenean nabarmendu beharreko lanetako bat.
5. Kasuaren arduraduna izatean nabarmendu behar den beste alderdi bat sinergia da, hau da, adingabearekin zentroan (edo beste edozein zerbitzu/programatan) egiten den lanak eta familiarekin egiten denak sinergikoak izan behar dute. Familia sistema jakin bateko egokientzat jotzen den programa dena dela ere, ezin da burutu ikuspuntu itxi batzuetatik begiratzen bada eta esku hartzen duten profesionalen helburuak bat ez badatoz.
6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuak helarazitako informazioa aztertutik, zentroko langileen ratio orokorrean ez dugu arazorik ikusten, baina egia da, halaber, zenbaki orokorrek ez dutela erakusten lan txandak nola antolatzen diren, eguneko ordu-tarte jakin batzuetan arreta gehiago edo gutxiago eskaintzeko. Iturriotz-Azpiko zentroaren kasuan, gure bisitaldian, mota horietako programentzat ezarritako ratioa egoki betetzen zen eta zentroa ikertzen ari ginen bitartean, ez genuen jaso inolako informaziorik kontrakoa pentsatzeko.
7. Esan bezala, harritzekoa da gauez lan egiten duten hezitzaileek txanda *finko* bat dutela, eta aukera hori zentro horiek arautzen dituen dekretuak xedatutakoarekin bat datorrela esatea. 86. artikuluko 2. eta 3. puntuak nahitasun horrekin irakurri ahal izan arren, dekretuak ez du aipatzen txanda errotazioa egiteko beharrik, ezta horren komenigarritasunik ere. Gure iritziz,



txanda finkoetan oinarritutako sistema batek izugarri zailduko luke dekretuak hezitzaileei egokitzen zaizkien funtzioak betetzea. Alde batetik, gaueko txanda finkoak izanez gero, neska-mutilen eguneroko bizitzan parte hartzea, erreferentziazko pertsona izatea eta laguntza ematea oso mugatua izango litzateke. Bestaldetik, lantaldearen kohesioan eragin lezake, eta taldekide guztiek hartutako neska-mutilen aurrerapenaren erantzunkide izan behar dutela kontuan hartu behar da. Jakin dakigunez, kohesioz lan egiten duen talde batek heziketa mailan esku-hartze eraginkorrago bat lortzen du eta gatazka gutxiago egoten da.

Erakunde honek ezagutzen dituen hainbat baliabidetako errealitateak baieztatu egingo luke iritzia hau, bisitatu genituen zentroetan txanda finkorik ez dagoen neurrian, izan ere, hezitzaileek modu askotara hartzen dituzte txandak eguneko eta asteko unearen arabera.

8. Zentro horiek arautzen dituen dekretuak xedatutakoaren hauste bat antzeman da, izan ere, hezitzaileen prestakuntzari dagokionez, kasu batzuetan oraindik gaikuntzarik gabea izatea, eta beste kasu batzuetan, prestakuntzarik eza, sindikatuek baliozkotzat jo duten arren. Edozein modutan, Euskadiko egoitzazentroen sare osoan konpondu behar den gai bat da, izan ere, zentroak arautzen dituen dekretua onartu zenetik 4 urte igaro ondoren, foru aldundiek profesionalen prestakuntzari buruzko baldintzak betetzeko zailtasunak nabaritu zituzten. Hori dela eta, 2012an, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak zirkular bat eman zuen, beste titulu batzuk dituzten pertsonak hezitzaile lana egiteko baimentzen zituena. Erakunde honek hasieratik erabat desegokitzen jo zuen zirkular hori araudiaren kontrakoa da, eta gainera, egilearen aurrean zalantzan jarri da dagoeneko, hala eta guztiz ere, orain arte ez dugu erantzunik jaso.
9. Programa espezializatu horien arduradun eta profesionalekin bat gatoz honetan: neska-mutilek behar dutena da heziketa mailan arduraldi handiagoa izatea, eta hain zuzen ere, araudian ratio altua eskatzeko arrazoia da. Hala ere, arrazoi horregatik, programa horietan lan egiten duten profesionalen kalifikatuenak izan beharko dutela uste dugu (adina, heldutasuna, esperientzia, etab. kontuan harturik), eta horretaz gain, laguntza izan beharko lukete neke emozional larria eragin dezakeen lan horretan. Horretarako, aurretik aipatutako prestakuntzaz gain, espezializatutako prestakuntza etengabea erabiltzeko aukera kontuan hartu, eta neurri berean eman beharko litzateke, baita beste profesional batzuen laguntza ere, ikuskapen edo antzeko formula baten bidez.
10. Neska-mutilen premiei erantzuteko, profesional taldeak ahalik eta kompetentzia handienekoa izatea lortzeko beste urrats bat emanez, beste komunikazio batzuen bidez (batik bat, gure txostenetan eta gomendioetan) erakutsi dugu dagoeneko lan taldea osatzeko profil desberdinetako profesionalak sartzea positiboa izango litzatekeela, batez ere, programa espezializatuetan.



11. Azaroaren bukaeran komunikabideetan agertu ziren albisteak direla eta, administrazioak, prentsak salatutako gertaerak ezagututa, azkar eta arduraz jokatu zuela uste dugu, erakunde honi eskuragai zen informazio osoa emateaz gain.

Beste alde batetik, kezkatuta gaude babesteko egoitza-baliabideei buruzko albisteak komunikabideetan agertzeagatik, adingabeei arretarik eza albistearen gakoa, eta lan gatazka larri bat oinarri izanik. Harremanetan oinarritzen den lan jarduerarekin pozik ez egoteak horren kalitateari eragin diezaiokeela ahaztu gabe, hezitzaileen zein administrazio eskudunen erantzukizunari dei egin behar diogu, neska-mutilak lan arloko gatazketatik babes ditzaten.

### Ondorioak

- Iturriotz-Azpiko zentroan egindako bisitaldian ez dira antzeman lehen ikusitako baldintza larriak, erakunde honen kezka izan zirenak. Aitzitik, zentroaren funtzionamenduak hobekuntza nabarmena izan duela ikusten da.
- Zentroaren kokapena aztertu behar da, gaur egun bertan bizi diren neska-mutilen beharrak kontuan hartuz gero, egokia ote den ikusteko.
- "Kasuaren arduraduna" izateko konpetentzia hezitzaile-tutoreei esleitzeko premia gogorarazi behar da eta horretarako laguntza eman, funtzioa nork bere gain hartzea bizkortzeko. Neska-mutilei arreta emateko oinarri-oinarrizkoa da eta heziketa-lanaren gakoa, hortaz, ezin da geldirik egon horren zain.
- Baliabideko neska-mutilei behar den bezalako arreta emateko, hausnarketa egin behar da lan txandak antolatzeko moduaren gainean, ahalik eta hoberena izan dadin, egoitza-zentroak arautzen dituen dekretuan ezarritako baldintzei buruzko printzipioarekin bat, antolaketaren irizpide nagusitzat neska-mutilen premiak zaintzea hartu behar duela ahaztu gabe.
- Heziketa profesionalen lana errazteko beraien prestakuntza egokia dela bermatu behar da, espezializatutako prestakuntza etengabearen eta kanpoko ikuskapenen bidez.
- Baliabide hauek arautzen dituen dekretuaren balizko aldaketari begira, hezitzaile taldean beste profil bateko profesionalak sartzeko aukera aztertu behar da.
- Azaroaren bukaeran prentsan agertu ziren albisteei dagokienez, gertatutakoaz ohartzeko unean administrazioaren jarduna egokia izan zen. Hala ere, erne egoteko eta hartutako adingabeak (baita egoitza-harrerako sare osoa ere) ahal den neurrian baliabideetako profesionalek izan ditzaketen lan gatazketatik babesteko eskatzen zaio.